

Zelestino Agirre Begiristain

*Ataun,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea

Biografia



Aia auzoan jaioa, gurasoak biak ziren bertakoak. 12 senide izan ziren, baina horietatik 10 bizi izan ziren. Bere anaia [Pedro](#)rekin batera kontatu dizkigu bere ume eta gazte garaiko kontu zein bizipenak. Argazkian ezkerrekoa da Zelestino. Bigarren elkarriketa bat egin genion. Istoriozalea eta kontalari ona izanik, bere aitari entzundako istorioak kontatu zizkigun, gehienak jentil eta sorginenak.

Zintak

ATA-024

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2011-08-26
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

ATA-033

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2012-01-26
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

ATA-034

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2012-01-26
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Lokatza, harri-koxkorak, zotzak, tortolosak jolaserako

- **Erref:** ATA-024/002
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Hamabi senide izan ziren, eta bi txikitan hil omen ziren. Lokatzarekin jolasten zuten. Harri-koskorak, zotzak, ura, zeramika zatiak... erabiltzen zituzten jolaserako. Tortolosak zer diren azaltzen du.

2. Ura nola ekartzen zuten erraramakilararekin eta ontziekin

- **Erref:** ATA-024/005
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bi kilometroko bidea izaten zuten eskolarako eta bazkaltzera etxera itzultzen

ziren. Egurretara edo zotzak bilatzera joaten ziren. Argindarra noiz jarri zuten gogoan dute, baita ura etxeraino ekarri behar izaten zutenekoa ere, erraramakilarekin eta ontziekin. Garoa jartzen zioten urari gainaldean, asko ez mugitzeko.

3. Emakumeek ura eta lixiba buru gainean

- **Erref:** ATA-024/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Emakumeek buru gainean ekartzen zuten ura, gehienetan. Burukotea jartzen zuten, bigungarri modura. Lixiba egiteko ere arropak halaxe eramaten zituzten, buru gainean. Errekara joaten ziren izarak-eta garbitzera.

4. Ordiziako feriara

- **Erref:** ATA-024/007
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ordiziako feriara joaten ziren, arrautzak, oilaskoak eta jakirik onenak eramanez. Autobusa Kaxetaraino iristen zen eta handik joaten ziren Ordiziara. Emakumeak ortuariak eta beste saltzera joaten ziren eta gizonezkoak ganadu kontuetara. Txekorra oinez eramaten zuten Ordiziaraino, hiltegira. Lan nekeza izaten zela kontatzen dute.

5. Soroa nola lantzen zuten, pausuz pausu

- **Erref:** ATA-024/009
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Laiarekin iraultzen zuten lurra soroan. Lehenengo zopizarra egiten zitzaion lurrari aitzurrarekin (belarra kendu); ondoren lurra ebaki egiten zuten, nabarrarekin (aizto bat, kirten luzearekin); eta azkenik laia pasatzen zuten.

6. Aita eta Bertizeko jabea, Pedro Ziga

- **Erref:** ATA-024/010
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aita Bertizen ibili zen lanean, hango etxera bidea egin zutenean. Aita astoarekin ibiltzen zen. Anekdotak bat kontatzen du, hango nagusiarekin, Pedro Zigarekin, izandako pasarte bat. Pedro Zigak animaliak zaindu egiten zituela kontatzen dute.

7. Txintxinean jolasa

- **Erref:** ATA-024/012
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:22:23. **Bukatu:** 00:23:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txintxinean ibiltzen ziren jolasean; makilekin egiten zuten jolasa azaltzen dute.

8. Zotz egiteko kanta

- **Erref:** ATA-024/013
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:23:39. **Bukatu:** 00:25:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Ezkutaketan, arboletan... jolasean aritzen ziren. Zotz egiteko kantuak izaten zirela diote. Zelestinok zotz-kanta abesten du.

9. Kapitaketan jolasa

- **Erref:** ATA-024/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:25:21. **Bukatu:** 00:26:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Kapitaketan jolasa azaltzen dute.

10. Koxkol jokoa

- **Erref:** ATA-024/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:26:21. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Koxkol jokoa nola egiten zuten kontatzen dute.

11. Txepetxaren, okilaren eta zozoaren habiak

- **Erref:** ATA-024/016
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:31:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Txorien habiak harrapatzen ibiltzen ziren. Txepetxaren, okilaren eta zozoaren habiak nolakoak izaten diren azaltzen dute.

12. Txori gutxiago zergatik dagoen

- **Erref:** ATA-024/018
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Txori gutxiago zergatik dagoen azaltzen dute; hostozabaleko baso gutxiago dago eta garia eta artoa ere askoz gutxiago daude. Txori asko izaten zituzten ganbaran neguan.

13. Enara eta saguzar ugari ikuiluan

- **Erref:** ATA-024/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:37:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Ugaztunak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Enarek habiak egiten zituzten ikuiluan. Saguzar asko izaten zirela diote. Kandlekin edo kinkearekin ibiltzen ziren argindarrik ez zegoenean, eta ikuiluan haren argitan, saguzar asko ikusten zituzten.

14. Ipurtargiak eta beste animalia batzuk

- **Erref:** ATA-024/020
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:37:34. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Ipurtargi bila ibiltzen ziren udaran. Banaka ikusten ziren, belar artean edo harrizuloetan. Ez zituzten biltzen, ikusi bakarrik. Zomorroak, zapoak, sugeak... ez zituzten ukitzen, gurasoek aginduta.

15. Txindurriei buruzko ipuina

- **Erref:** ATA-024/021
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:40:09. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Txindurriei begira egoten ziren, zein ibilbide egiten zituzten, zer eramaten zuten beraien txindurri pilara, zelako arrautzak izaten zituzten... Txindurriei buruzko ipuina kontatzen dute.

16. Trikuari begira

- **Erref:** ATA-024/022
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:43:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Ugaztunak

Laburpena:

Trikua ikustea ikusgarria izaten zela dio Pedrok. Beldurtutakoan, pilota baten moduan biltzen dela azaltzen dute. Bakean utziz gero, joan egiten dela diote.

17. Arkumeak, oso maiteak

- **Erref:** ATA-024/023
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:43:37. **Bukatu:** 00:46:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Arkumeak jaiotzeko garaia oso polita izaten zen. Lagun artean, zeinen etxean lehenengo jaio, hura txapeldun. Arkumeak jolasean ikustea oso polita izaten dela diote. Artaldean ardi beltz bat edo bi izaten ziren, eta beltza bereziki maitatua izaten zen.

18. Gaztaina erreak eta ipuinak sutondoan

- **Erref:** ATA-024/025
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:47:33. **Bukatu:** 00:49:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Baserrietan gaztainondo asko izaten ziren eta neguan gaztaina erreak jaten zituzten, zartanean erreta. Aitari gaztainak zuritzen zizkioten eta hark kontuak kontatzen zizkien, suaren inguruan. Kriseiluak erabiltzen zituzten argiztatzeko.

19. Kriseilua nolakoa den

- **Erref:** ATA-024/027
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:54:13. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Kriseilua erakusten dute eta azalpenak eman, nola erabiltzen zen ulertzeko.

20. Aiatarrak jentilen ondorengo

- **Erref:** ATA-024/031
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:06:23. **Bukatu:** 01:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Jentilen eta sorginen ipuin asko zekizkien aita, bere gurasoei entzunda. Aiatarrak jentilen ondorengoak direla esan izan da.

21. Jentilen ezaugarriak

- **Erref:** ATA-024/032
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:07:15. **Bukatu:** 01:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Jentilak nolakoak ziren azaltzen dute: basatiak, jantzirik gabekoak, mendian bizi zirenak...

22. Artzainak jentilari emandako eskarmentua

- **Erref:** ATA-033/002
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:02:21. **Bukatu:** 00:06:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Jentilen istorioa kontatzen du. Jentilak artzainaren esnea hartzen zuenez, eskarmentua eman nahi izan ziotenekoa.</p>

Transkripzioa

Bueno, jentillena... Kontauko dizuet bat. Hemen, leizari beheti, kueba batzuk badare, eta... Hor bizi izan emen zien garai hartan, karo, kobazulotan bizi zien, jentillek eta. Hor e, famelik bezela, ba... bertan kuebean, bi kueba dare, bata besten ondoren, eta hor bizitzen emen zien. Eta, bat, oso gazte fuertea emen zeon, eta eitten emen zion mendia bialtzen zittun behiek-eta harrapau eta behiei esnea ean ta hola ibiltzen emen zan. Eta, Aitzarten, artzaie eoten emen zan, Señoratza izeneko sarioia, ardi sarioia, txabolekin ta emen zeon eta. Geo, udaberriñ artzaie jun zanen, hasi emen zan harreana juten, eta biltzen zittuen esnek eraten emen zion artzai horri. Ta artzaie, ba, bildurrez! Eze esateko´re jentil haundie emen zan, eta jentill horri eze esateko bildurrez. Eta behera etorri zan baten pentsau emen zion: "Apaizai kontau ber zoat, aber ze esaten dien". Ta herriko apaizai kontau emen zion, ta esan emen zion: "Hizketan-ta aitzen al da?" ta "Bai, bai, hizketan-ta aitzen gea" ta "Galdetu behar diozu, beak izena zer doon eta aber nundik... nola manejatzen duen eta zuk eman konberstazioa, eta, zuri galdetzen baizu izena zer dezun -esan emen zion- Neuk esan, zuk Neuk zeala esan". Ta galdetu emen zion: "Beti etorri eta leku baten esertzen al da?", ta "Bai, txabolen ondoren, hola, harri xabal bat dau, eta harretxen gaiñen jartzen da, ta esnek ean ta alde eitten do". Esan emen zion: "Ba iñoiz´e galdetzen dizunen aber izena zer dezun, zuk esan Neuk zeala. Eta geo, beti bezela etorriko da hue berriz´e, eta eserleku hoi in behar dezu, surtan bero-bero einda jarri. Ta han ipurdie berotzen zaionen, ba, alde eingo do". Hala, esan bezela, bee konfiantzan eta hizketan-ta ai ziela behintzat, jentill horrek galdetu emen zion aber izena zion, zer zion artzai horri, ta Neuk zola. Geo, hurrengo eunen, harri hoik beotuta jarri dittu, gorri-gorri inda, eta beti ordu jakiñen juten emen zan. Ta etorri ta jarri emen zan eseita harri horren gaiñen, ta bueno! ipurdie erreta, bueno...! Sue zeriola, garrasiz beheti gora! Ta goiko gaiñetik jentillek hots eitten emen zioen: "Zeiñek ein dik?" eo "Nork ein dik?" eta "Neuk neuri!" esaten emen zioen "Neuk neuri!" eta. Bai, bestak entenditzen emen zuela, ba, beak ein ziola bere bururi, ta: "Horrek [hobe] ein zok, hor daun artzai gixaixo horri!" esan emen zioen, goitti kontestau emen zioen. Ta artzaiek hoi aittu zonen, ardik eta danak utzi, eta herria! Ta gero, hurrengo eunen, kuadrillanbat jun emen zien, eta ardik-eta hartu eta Aralarra pasau emen zien. Baezpa´re, horiin ingurun peligroa eongo zan eta...

23. Jentilek Jesus jaio zela jakin zutenekoa

- **Erref:** ATA-033/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:06:44. **Bukatu:** 00:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Jentilen istorioa: Jesus jaio zeneko erreakzioa.

24. Jentilak gizonaren aurka borroka egin nahi zuenekoa

- **Erref:** ATA-033/005
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:08:59. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Jentil batek gizon baten aurka egin nahi zuen borroka, eta haren bila aritu zen inguruetan. Asmoa zertan gelditu zen kontatzen du.

25. Hiru ahizpen hizkera

- **Erref:** ATA-033/007
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Behin neska batzuk etxean haria egiten ari zirela izandako elkarriketa kontatzen du.

26. Tartalo eta eraztunaren ipuina

- **Erref:** ATA-033/009
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:21:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Tartalo Musiken bizi omen zen, eta gizakiak jaten omen zituen. Gizon bat harrapatu nahi izan zueneko ipuina kontatzen du.

27. Basajauna eta gariaren ipuina

- **Erref:** ATA-033/010
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:21:26. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

San Martin Txiki basajaunari buruz hitz egiten du. Basajauna eta jentilaren arteko abenturak.

28. Beasainmendiko familiari buruzko istorioa

- **Erref:** ATA-033/012
- **Iraupena:** 0:09:18. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:35:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Beasainmendiko familia bati buruzko istorioa kontatzen du. Aita hil egin zen, eta amak semea hainbat erosketa egitera bidali zuen. Haren baldarkeria ikusita, nola-hala konpondu ziren aurrera egiteko.

29. Sorginei buruzko ipuina

- **Erref:** ATA-033/014
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:40:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sorginei buruzko ipuina kontatzen du.

30. Euliaren aurkako erremedioa

- **Erref:** ATA-033/015
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:44:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Behin soroan lanean zebiltzala, euliak gizon bati kosk egin, eta hitzik egin gabe gelditu zen. Hura bere onera bueltatzeko erremedioa probatu zuteneko istorioa kontatzen du.

31. Apaizgaien istorioa

- **Erref:** ATA-033/017
- **Iraupena:** 0:07:49. **Hasi:** 00:44:34. **Bukatu:** 00:52:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Apaiz izateko ikasten ari ziren gazte batzuei etsaiarekin topo egindakoan gertatutako istorioa kontatzen du.

32. Tximiniatik sartzen zen gizontxoaren ipuina

- **Erref:** ATA-034/002
- **Iraupena:** 0:05:53. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Tximiniatik behera sartzen zen gizontxoaren ipuina kontatzen du.

33. Bere hileta imajinatzean algaraka zebilen neska

- **Erref:** ATA-034/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Zegaman gertatutakoa. Neska bat barre algaraka hasi zenekoa, hiltzean bere gorpua lau gizonek eraman behar zutela imajinatuz.

34. Ahuntzak elizan

- **Erref:** ATA-034/006
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:11:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Elurte batean ahuntzak elizara sartu eta dena kakaz beteta utzi zutenekoaren istorioa. Apaizak, igandeko mezan herritarrei kaka banatu zien jaunartzearekin batera, denen artean eliza garbitzeko.

35. Errolanen harria eta jentilaren apustua

- **Erref:** ATA-034/008
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:11:37. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Aralarreko jentil batek Errolanen harriarekin egindako apustua egin zuenekoak. Jentilak Uharte ibaian ura edaten zuen, hanka bat Beriainen eta bestea San Migelen jarritz.

36. Agirretarrak eta jentila

- **Erref:** ATA-034/015
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Agirretarren eta jentil baten arteko harremanaren istorioak kontatzen ditu. Maru eta Marumendi.

37. Goñiko zaldunak eta San Migelgo herensugea

- **Erref:** ATA-034/017
- **Iraupena:** 0:05:59. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Goñiko zaldunei eta San Migelgo herensugearen istorioa.

38. Konjuruak eta gurutzetxoak

- **Erref:** ATA-034/019

- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:33:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

"Ainhua" deitzen zioten garia eta artoak zuen gaixotasun bati. Apaizari deitu eta honek konjurua egiten zuen soroan. Urtero Santa Kurutz egunean bedeinkatutako gurutzetxoak jartzen zituzten leku guztietan. Oraindik Ataungo auzo batzuetan mantentzen den ohitura da.

39. Sugar batek eraman zuen mutila

- **Erref:** ATA-034/022
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:35:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Iturritzan, bazen arrosarioa errezatzen ari ziren bitartean kalera erretzera atera, sugar bat heldu eta eraman egin zuen.

40. Sugarra Aizkorritik behera

- **Erref:** ATA-034/024
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sugarra Aizkorritik behera jaisten zela esaten zen. Behin, Zelestinok ikusi omen zuen eta beldur asko pasa zuen.

41. Andre zaharrez mozorrotutako herenugea

- **Erref:** ATA-034/026
- **Iraupena:** 0:08:25. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Andre zahar batez mozorrotutako herensugea, egunero etxe batera joaten zen eta hango neskaren atzamar bat jaten zuen. Anaiari kontatu eta herensugearekin nola bukatu zuen kontatzen du.

42. Ipuinetan, landareek eta animaliek hitz egiten zuten

- **Erref:** ATA-034/028
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:47:57. **Bukatu:** 00:48:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Garai bateko ipuinetan, animaliek eta landareek beti hitz egiten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com